

Balorezko proposamena

Txirrindulaz zure hiriko edo herriko txoko berriak miatzea gogoko duzu? Atzerrira zoazela, garraio publikoaz gain, bertako toki esanguratsuak bizikletaz ezagutzea gustuko duzu?

Zure ustez, ingurumenaren alde borrokatu dezakezu, mundua 20 urtetan amaitu ez dadin? Galdera guzti hauen erantzuna baiezkoa izan bada, gure proiektuaren bezero izateko prest zaude.

EDONOR(A), Gasteizko lau lagunek sortutako proiektua da, ilusioz betetako ekimen jasagarria, ingurugiroaren babesa eta gizartearen ongizatea sustatzen duena.

Gure egunerokotasunean inguratzen gaituzten arazoak aztertuta, arazo horiei konponbide bat aurkitzea helburua daukagu. Zerbitzu berritzailea, erakargarria, erabilerraza, eroso eta eskuragarria da adin guztiko pertsonentzat. Berrikuntza honek oinarriztat bizikletak ditu, eta honek beste hainbat gauza bultzatzen ditu, bizikletaren gurpilek bizikleta bera bultzatzen duten moduan.

Gure txirrindulek, martxan jartzerakoan sortutako energia biltzen dute, eta hau, bizikleta berak eramango duen kutxatxo konplexu batean bildu egingo da. Helburua, ahalik eta energia gehien pilatzea da. EDONOR(A) ekimenaren erabiltzaileek astean 10km-tik gora egitea da erronka.

Modu honetan, helburuak jarri egiten dizkiegu gure bezeroei, bizikleta hartu eta lur planetari laguntzen ari diren bitartean kirola egiten dutelarik. Txirrindula erabili egiten denean, energia zinetikoa sortu egiten da, eta energia mota hau argindarra sortzeko erabili daiteke, besteak beste. Hau jakinda, uste dugu oso ideia ona izango litzatekeela gure bezeroek sortutako energia lbedrolari, adibidez, ematea. Modu honetan eskuragai izango dute energia elektrizitatea izateko eta modu erraz eta merkeago batean. Horren truke diru kopuru bat jaso egiten dugu eta diru kopuru hori Montes Solidarios izeneko elkartera bideratuko dugu.

Montes Solidarios izeneko elkarteak mendietatik jarduerak egiten ditu desgaitasunak dituzten pertsonekin eta ezinbestekotzat jo dugu, horrelako jarduerak egiten dituzten elkarteekin elkarlanean aritzea. Izan ere, diru laguntzak behar dituzte, ekipamendu eta antolaketarako. Espedizio hauek aurrera eraman ahal dira, pertsona bolondresei esker;

baina noski, diru laguntzak ere behar dituzte bai ekipamendua, antolamendua eta proiektua bera aurrera eraman ahal izateko. Hori dela eta, gure bezeroek txirrindulan ibiltzeagatik sortutako energia saldu ondoren, jasotako dirua proiektu solidario honetara bideratuko dugu. Haien web orrialdean adierazi egiten duten moduan, beharrezkoak dituzte diru laguntzak aipatutako guztia aurrera eraman ahal izateko da.

Gure taldearen izena EDONOR(A) da, eta edonor, edonora joan daitekeela adierazten du. Honekin lotuta dago Montes Solidarios elkarteari laguntzeko ideia, edonork duelako aukera mundua ezagutzeko eta kirola egiteak dakartzan onuretzat disfrutatzen.

Hainbat helburu ditugu sortu berri dugun honekin: lehenik eta behin, esan beharra dago, xede nagusiak kirolaren sustapena eta ingurumenarekin eta sozialki konpromezua hartzea dira. Egunerokotasuna beste modu osasuntsu batean eramatea eta aldi berean, beste pertsona batzuk laguntzea.

Gasteizkoak garenez eta enpresen munduan sartu berriak garenez, gure hirian hasiko gara. Baliabide gehiago lortzen ditugunean, asmoa daukagu beste herri eta hiri batzuetara hedatzea. Hasiera batean gure xedea, proiektuak daukan onura edo ekarpena ikustea da, jendeak nola erantzun duen ikusi eta aurrerago gauzak zabaldu egiteko.

Gasteizko udalerria aukeratu egin ditugu proiektu hau aurrera eramateko gune aproposa dela uste dugulako. Lehenik eta behin, inpaktu handia daukalako hiri batean horrelako proiektu bat aurrera eramateak, honen bidez, jende gehiagoren begi bistan egon gaitzkeelako. Horrek lagundu liezaguke enpresa moduan haztean.

Bestalde, Gasteizen bidegorri ugari aurkitu ditzakegu; Gasteiz hirian zehar dagoen bidegorri sarea oso zabala da eta. Gainera, EAEko hiriburua, Green Capital izendatu egin zuten, eraztun berdea eta dituen berdegune ugariengatik. Honek, erraztu egiten du txirrindulariak toki gehiago izatea bizikletaz edonora edonora joan dadin.

Horrez gain, minutu gutxitan Gasteiz ondoko herrietara irits zaitezke bizikletaz, esate baterako, "Vasconavarra" izenez ezaguna den bidea erabiliz. Modu honetan ere, sustatu egiten da bizikletaren erabilera, baita gure herriak gordetzen dituen txoko magiko eta bereizgarriak ezagutzea.

Gure ideak dituen abantailen artean ondorengoak aipatu ditzakegu:

- Bizikletak erabiltzea nerabe eta gazteentzat modu aparta da, adibidez, parrandan ibili ondoren etxera itzultzeko zein lagunen artean Gasteizko inguruetatik irteerak egiteko. Gasteizen, hots, Gautxoriaren ordutegi eta lineak oso urriak dira eta zenbait zonalde edo auzoetara ez da heltzen. Honek batzuetan taxiak hartzera bultzatzen ditu nerabeak, diru dexente gastatuz. Bizikletarekin, Gasteizen behintzat, 15-20 minututan edozein tokitara iritzi zaitezke modu eroso eta azkar batean. Edozein momentutan hartu dezakezu bizikleta eta ez zara autobusari itxoiten egon behar.
- Gainera, gurekin lan egingo duten instituzioen eta enpresen itxura hobetuko luke, gehien bat ingurumenarekin eta sozialki konpromezua hartu egiten dutelako eta jendeak, gaur egun, hori asko baloratu egiten duelako.
- Ez hori bakarrik, bizikletan ibiltzeak onura ikaragarriak ditu. Adibidez, gure egoera fisiko eta mentala hobetu egiten du, honek gure bihotzak gehiago ponpatzea dakar eta ondorioz gaixotasun kardiobaskularrak sahiesten ditu. Bihotzekoak edo ictusak izatearen arriskua murriztu, belaunetako giltzadurak sendotu eta bizkarreko mina sahiestu egiten du. Estresa eta tentsioak murriztu egiten ditu eta onek onura ikaragarriak ditu, hainbat ikerkuntzek adierazi egin duten moduan. Alde batetik, gure harremanekin hobetu konpontzen gara eta bizimodu lasaiagoa edukitzera daramatzagu. Gainera, ariketa fisikoa egiteak, gauean hobeto lo egiten laguntzen digu, gehien bat, jarduera fisikoa egin ondoren nekatuta gaudelako.
- Beste alde batetik, ingurugiroan eragin positiboa izango luke gure ideak, konpromezua hartu egiten dugulako ingurumen eta Lur planetarekin, bizikletaz bagoaz ez dugulako kutsatuko. Izan ere kutsadura XXI. mendeko arazorik larriena da eta bai gure bizitza eta osasuna eta baita gure planeta desagertzeko zorian daude. Honek sortzen dituen sustantziarik arruntenak hauek dira: CO₂, CO, NO_x, erre gabeko hidrokarburoak, beruna, ozonoa eta partikula solidoak. Partikula batzuk oso txikiak (pm 10ekoak) direnez sudurretik edo ahotik sartzen dira eta birikietan itsatsita geratzen dira. Biriketako minbizia izateko probabilitatea handiagoa izango da halako partikulak arnasa hartzerakoan. Horregatik, OMS-k esaten du biriketako minbiziak lotura zuzena daukala kutsadura handiarekin eta 223.000 pertsona hiltzen direla honen ondorioz. Pm 2,5ekoak, bestek baino handiagoak dira baina hala ere, gorputzean sartzea lortzen dute. Oso pozoitsuak dira eta horren ondorioz, gaixotasun kardiobaskularrak sortzen dituzte. Esate baterako, munduan 800.000 pertsona hiltzen dira arazo hauen ondorioz. Gasteizen, adibidez, abenduaren 12an airean 144 pm zeuden eta Donostian egun askotan iristen da maila handietara. OMS-ren arabera, guztira 3,2 miloi pertsona hil egin daitezke partikula horien

eraginagatik. Ozonoa, aldiz, sustantzia oso toxikoa da. Espainia da Europar Batasunean ozono gehiago dagoen lekua. Gaur egun kontrolik gabeko sustantzia da eta bere kopurua handitzen da beroarekin. Kotxeek nitrogeno oxidoa haizetara botatzen dute eta nitrogeno oxidoa eguzki- izpiekin deskonposatzen da ozonoa sortuz. Arnas hartzeko arazoak sortzen ditu eta uzten ekoizpena murrizten du. Hirietan kutsadura gehien sortzen dutenak kotxeak dira eta askotan kutsadura hori ez da atmosferara joaten baizik eta kalean geratzen da. Beraz, kotxeen kutsadurak pertsonen osasunean eragin handiagoa du fabriken kutsadurak baino. Bizikleta erabiltzen badugu kontsumoa asko murriztu daiteke. Adibidez, hirien trafikoa %33n jaitsiko litzateke; Amerikako Estatu Batuetan trafikoa %49n murriztu egin zen bizikletak erabiltzen hasi egin zirenean. Are gehiago, txirrindulak erabiltzean 16 aldiz gutxiago erabili beharko genituzke aparkalekuak, hori dela eta, hiriak askoz garbiago egongo lirateke, baita gure osasuna ere.

- Azkenik, euskara ere gure proiektuaren osagaietako bat ere bada. Izan ere, gure hizkuntza bultzatzea nahi dugu eta horretarako gure lehen hitza euskeraz izango da. Gure ustez, zaindu egin behar den gauza da, erabili egiten ez baldin bada galdu egiten delako eta euskara hain hizkuntza txikia eta hain zaharra izanik, ezinbestekotzat hartzen dugu ahalik eta gehien saintzea eta sustatzea. Hori dela eta, gure lehenengo hitza euskeraz izango da.